PORRONTXO

JAIAK

2018

IRAILAK 10-16 EGIA

Kaleak berriro zapalduko ditut nik

Jada badira hogeita hamaika urte Egiatik alde egin behar izan nuela Egiaren alde egoteagatik.

Egiatar guztiek ezagutzen dituzte Porrontxo jaiak, eta donostiar gehienek, baita euskal herritar anitzek ere... baina nik orain arte ez dut eduki haietaz gozatzeko aukerarik apenas.

Kanpoan egonda, giltzapean, Pablo Milanesek abesten zuen "Yo pisaré las calles nuevamente" abestia etorri zait gogora askotan. Abestia hunkigarria baina ez bakarra, izan ere "La vida no vale nada" izeneko diskoan txertatuta baitago eta, hartan, hura bezain doinu eta letra zirraragarriak badaude, egon, etxea, adiskideak, auzolagunak eta bizitza, oro har, gogora ekartzeko.

Egia baita, bizitzak ez duela piperrik ere balio baldin eta:

Si no es para perecer porque otros
puedan tener lo que uno disfruta y ama...
La vida no vale nada si tengo que posponer
otro minuto de ser y morirme en una cama...

Ezin baitugu ohean geratu eta izateari utzi. Bizi beharra dago, gauza guztien gainetik eta sasi guztien azpitik, erre zituzten sorginen erratzak guk dauzkagulako.

Horregatik, Porrontxo hauetan, zuekin batera, zuek gogoan eta zuen gogoan, Egiako kaleak berriro zapalduko ditut nik eta, Kubako abestiak dioen moduan:

"y en una hermosa plaza liberada me detendré a llorar por los ausentes"

Jaiak bertan daudenak gozatzeko izan arren ez baitira inoiz guztiz osoak izaten festan egoterik ez daukatenak ahaztuz gero, eta nik, jai osoak, askeak eta denontzat irekiak opa nahi dizkizuet...

Gora Porrontxoak, gora egiatarrak eta gora herri gogoa !!!

PORRONT

Irailak

egiako

10 ASTELEHENA
Ajia arintzeko... ur jolasak!

16:00 Haurrentzako APAR FESTA, BARREDORA ETA PUZGARRIAK **NAVAR EKOIZPENAK**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

17:00 TXIRRISTRA ERRALDOIA haurrentzat Plaza Haundiren ondoko aldapan.

11 ASTEARTEA
Moko finen eguna!

17:00 BIZI GINKANA **"GIMBE eta HAURGUNEA"**-ren eskutik. Margoketa gunea (gorputza edo papera aukeran). 0-3 gunea puzzle eta moduluekin.

18:00 TXOKOLATE JATEA Plaza Haundin.

18:30 Talo tailerra trilkitilariek alaituta plaza Haundin.

19:00 "MILA PINTXO MILA KOLORE", Porrontxoetako X. Pintxo Lehiaketa eta dastaketa. Plaza Haundin.

20:00 **ERASO SEXISTEN PROTOKOLOAREN AURKEZPENA ETA ARGAZKI ZABALA** Plaza Haundin. Egian, EZ INON, eraso sexistarik EZ!!!

12 ASTEAZKENA
Kultour egian barrena!

17:00 Haur eta gazteentzako JOLASAK Plaza Haundin.

17:00 ONGI ETORRI taldeak antolatutako TRIBIALA plaza Haundin.

18:30 Haurrentzako EGIZU ZURE EMOJIA maskara tailerra **EL ESTUDIO ARTE AKADEMIA**ren eskutik plaza Haundin.

13 OSTEGUNA
Gora gu ta gutarraaaak!!

17:00 BURUHAUNDI ETA ERRALDOIAK, **"LAGUNAK"** Txarangak lagunduta EGIAN zehar.

17:00 Trikitilariak ALDAKONEA EGOITZAN.

17:30 HAUR JAITSIERA. "LAGUNAK" Txaranga, Porrontxa eta Porrontxo eta buruhaundien laguntzarekin.

18:00 Haurrentzako DENBORAN DANTZAN dantzaldia **"DEABRU BELTZAK"**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

19:00 Gazteak eta ez hain gazteak ... denak KARROZAK TUNEATZERA!!!!! TABAKALERAn. (gasofazko motorra, turbo edo antzeko tramankuluak debekatuak daude).

20:00 PREGOIA ETA TXUPINAZOA TABAKALERAn.

20:01 KOADRILEN IGOERA MUSIKATUA **LA KONGA TXORONGA**-ren eskutik, azkena ipurdi gizena! Porrontxa eta Porrontxorekin batera noski

20:30 "LAGUNAK" Txaranga EGIAN zehar.

22:00 Urtero lez, aurten ere, KARAOKE HERRIKOIA Plaza Berriko karpan.

22:00 Musika emanaldia Plaza Haundin, DJ BULL ezagunaren eskutik. Mugitu gerriak!!

22:30 Ohitura onak ez galtzeko **BALDARRAK** TXARANGA EGIAN zehar.

14 OSTIRALA
Haur, gazte ta beteranoen eguna!

08:00 DIANA dultzaineroekin EGIAN zehar.

11:30 HAURREN ENTZIERROA Tejeria kalean.

12:00 HAMABITAKOA Plaza Haundin.

12:00 **ESPIEN EGUNA** ikuskizuna "TOMAXENABENTURAK"-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

17:00 BURUHAUNDIAK, Porrontxa, Porrontxo eta REMIX SOUND SYSTEM EGIAN zehar. Mozorrotzeko gaia: marrazki bizidunak.

17:00 **BEA EGIZABAL ETA CESAR MARCOS** izango ditugu ipuinak kontatu eta marrazkiak zuzenean egiten, TABAKALERAko Z aretoan. Bertan parte hartzeko izen ematea TABAKALERAko Web-ean duzue. TABAKALERA antolatuaz.

18:00 **ANTXETA-TTANTTAKUN**en eskutik HAUR JOLASAK Plaza Haundin.

20:00 AFARI-MERIENDA haurrentzat Plaza Haundin (pilotalekuaren ondoan). Txartelak Arkatza liburudendan.

20:00 **EGIAKO II. MENDI BIZIKLETA LASTERKETA URBANOA**. ROUND 1. Benita Asas Plazatik (Etxabe ondoko parkea) Plaza Haundira. GIMBE antolatuta.

20:30 DANTZALDI SORPRESA haurrentzat **EGIHAURGUNEA**ren eskutik Plaza Haundin (pilotalekuaren ondoan).

21:00 Beteranoen AFARIA Tejerian.

21:30 ZEZEN SUZKOA Tejeria kalean Ostotsatik behera.

21:30 **EGIAKO II. MENDI BIZIKLETA LASTERKETA URBANOA. ROUND 2eta3.** Aldapa 71tik KATAko eskaileetara eta EROSKIko parkingeko eskaileetara.

22:30 PLAZA HAUNDIN KONTZERTUAK: ANDONI, ZOPILOTES TXIRRIAOS eta KOBAN

23:00 GUATEKEA Tejeria Kalean.

Gazte eguna

14:00 GAZTE HERRI BAZKARIA Plaza Berrin (karpan).

17:15 Dantzatzera gazteak!!!! EONIAN Elektrotxaranga Plaza berritik Egia alaitzen.

19:00 Urteroko karpako KONTZERTUAK. Aurten: LUMI, PELAX ETA NERABE

00:30 Gaua potente amaitzeko, Balza karpan. Itxiera arte.

15 LARUNBATA
Porronsoro eguna

08:00 LAGUNAK TXARANGA EGIAN zehar.

11:00 MUNDUKO JOLASAK, **JOKULANDIA**-ren eskutik, Gladys Enean eta ondoren TXOKOLATE JANA.

11:00 PIZZAK EGITEKO TAILERRA haurrentzat **TABA-ARIZMENDI** pizza etxearen eskutik TABAKALERAn (Turnoak egongo dira, Arkatza liburudendan apuntatu!).

11:00 Nafarroatik zuzenean "VOCES RIBERAS" taldeak JOTAK kantatuko dizkigu Plaza Haundin. Gora la Nabarra maritimaaa!

12:00-15:00/ 17:00-20:00 Motorren elkarretaratzea Ametzagaña 66ko Plazan. ANDEN tabernak antolatuta.

12:30 DANTZA KALE POTE **KUADRILA BETERANO**en eskutik EGIAN zehar.

13:00 MARMITAKO dastaketa **RITA BY ISMAEL** jatetxeak antolatua.

14:30 DENAK ETXERA BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin.

16:30 MUS TXAPELKETA **AGREDA** Tabernan.

+INFO porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

17:00 **LA JODEDERA** Plaza Haundin.

17:00 BURUHAUNDI eta ERRALDOIAK, **KAÑA2KAÑA** trikitilariek alaituta EGIAN zehar.

17:00 ESKUBALOI TXAPELKETA, kiroldegian, **EGIA ESKUBALOIA**ren eskutik.

17:30 **HAURTXOKOA**ren eskutik ZIRKU JOLASAK eta TAILERRAK Gladys-Enean

17:30 GAZTE JOLASAK, **EGIA HEZITZAILE TALDEA**ren eskutik GladysEnean.

19:00 KARPAN KONTZERTUA: **TAJON PRIETO Y LOS KUAJALOTES**.

19:30 **TREBESKA DANTZA TALDEA**ren eskutik EMANALDIA Plaza Haundin.

20:00 Porrontxo Jaietako XXI. HERRI KROSA.

21:00 ZEZEN SUZKOA Tejeria kalean, Ostotsatik behera.

21:00 DJ Ametzagaña 64an ANDEN tabernak antolatuta.

21:30 KOADRILEN AFARIA Tejeria kalean.

22:00 KARAOKE Ametzagaña 64an ANDEN tabernak antolatuta.

22:00 KONTZERTUA **Cactus tabernan**: TXARKEY.

22:00 **IRAUNKORRAK** TXARANGA EGIAN zehar.

22:00 MUSIKA EMANALDIA **LAIOTZ** taldearekin Plaza Haundin.

23:00 **DJ TELMO TRENOR** Agreda tabernan.

00:30 **KALEJIRA** Porrontxa, Porrontxo eta zanpantzarrekin.

01:00 ROCK KAM BROOM!!! EGIAN zehar. Rock bertsio ibiltariak.

01:00 Plaza Berriko KONTZERTUAK: 2ZIO, eta gero... TURTUKIÑAK DJ.

01:00 **BALDARRAK** TXARANGA EGIAN zehar.

16 IGANDEA
Euskal jaia

07:00 TXARANGA HERRIKOIA **KILKERBAND**-ekin + **PORRONTXA eta PORRONTXO**-ekin batera **GAUPASEROEN MARTXA!!!!**

11:00 **KZAZPI** txistulariak, EGIAN zehar.

12:00 **SAGARDO DASTAKETA** trikitilariek alaituta Plaza Haundin.

12:00 Haur eta gaztetxoentzat **ALTXORRAREN BILA** Plaza Haundin.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin **DONOSTI-GAIN**, **UR-ZALEAK** eta **ARRANO** elkarteek antolatuta.

17:00 "GURE ESKU" HERRI KIROLAK Plaza Haundin trikitilariek alaituta.

18:30 KONTZERTUAK Plaza Berrin: **SISTI KATA** eta **GERA SEXATU**.

19:00 SARDINA JATEA Plaza Haundin **TXARO arraindegia**ren laguntzaz.

19:00 ERROMERIA **IRATZAR** taldearekin, Plaza Haundin.

20:00 **KILKERBAND** TXARANGA EGIAN zehar.

21:00 **Kalejira** EGIAN zehar Porrontxa eta Porrontxorekin **KIRKERBAND** txarangak alaituta.

22:00 **AZKEN TRAKA**.

00:00 **GUI AR DE GUORLD**, aurtengo jaiei agurra OSTOTSA tabernan. Hurrengo urte arte!!!!

IRAILAK 10-16
PORRONTXO
JAIAK 2018
EGIA

PORRONTXO JAIAK
2018
IRAILAK 10 - 16
EGIA

EGIA
2018
PORRONTXO JAIAK
IRAILAK 10-16

PORRONTXO JAIAK 2018
EGIA
IRAILAK 10-16